



## **23/2019 TXOSTENA, AZAROAREN 22KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOJKU-BATZORDEARENA**

**XEDEA: GOBERNU KONTSEILUAREN ERABAKI-PROPOSAMENA, ZEINAREN BITARTEZ ADOSTASUNA ADIERAZTEN BAITA ETA ESANBIDEZ BAIMENA EMATEN BAITA INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILARI ATXIKITA DAGOEN ALOKABIDE S.A. SOZIETATE PUBLIKOARI BITARTEKO PROPIO PERTSONIFIKATUTZAT AITORTZEKO.**

### **I.- AURREKARIAK**

2019ko urriaren 25ean, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Aholkularitza Juridikoak txosten-eskaera egin zuen Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamenari buruz. Proposamen horren bitartez, adostasuna adierazten da eta esanbidez baimena ematen da ALOKABIDE, S.A. sozietate publikoa –Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari atxikita– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren bitarteko propio pertsonifikatutzat aitortzeko.

Eskaera Ondare eta Kontratazioko zuzendariari egin zaio.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetu da espedientea (erreferentzia: AAAA\_ACG\_3288/19\_05).

### **II. – EDUKIA**

Erabaki-proposamenaren xedapen-zatian honako erabaki hauek biltzen dira:

<<**Lehenengoa**.- Adostasuna adieraztea eta esanbidez baimena ematea ALOKABIDE, S.A. sozietate publikoari aitortzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren bitarteko propio pertsonifikatutzat, baldin eta kontratazio publikoaren araudiak hori izateko ezartzen dizkien baldintza guztiak betetzen baditu.



**Bigarrena.-** Kontrol Ekonomikoko Bulegoari agintzea egiazta dezala aurreko puntuan aipatu den erakundeak bitarteko pertsonal eta material egokiak ote dituen agintzen zaizkion mandatuak egiteko, betiere Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera. Lege horren bitartez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

**Hirugarrena.-** Akordio hau helaraztea lehen puntuan aipatutako erakundeari, haren estatutuak egokitu ditzan, eta, horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren berezko bitarteko gisa aitortzea, bai eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoari ere jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan>>.

### **III.- BALDINTZA JURIDIKOAK**

Jakinarazten den Akordio-proposamenaren helburua, batetik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32.2.d) artikuluan xedatutakoa betetzea da, zeinak Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak, hemendik aurrera, SPKL; eta, bestetik, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. Tituluko 1. Sekzioan xedatutakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzkoa:

SPKLren 32. artikulua 2. apartatuan azaltzen da zer baldintza bete behar dituzten pertsona juridikoek, zuzenbide publikoek nahiz zuzenbide pribatukoek, sektore publikoko erakunde jakin bakar baten bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzeko. Baldintza horien artean, d) letran honako hau zehazten da:

*"d) Mandatuaren hartzaile den erakundeak berariaz aitortu beharko du, bere estatutuetan edo sorrera-ekintzetan, mandatua ematen duen botere adjudikatzaile jakinaren bitarteko propio pertsonifikatua dela, honako baldintza hauek bete ondoren:*

- 1. Zer botere adjudikatzailekiko bitarteko propioa izango den, haren adostasuna edo berariazko baimena.*
- 2. Erakunde publikoak egiaztatu beharko du bere bitarteko propioa izango den ente horrek giza baliabide eta baliabide material egokiak dituela mandatuak beren xede sozialaren arabera betetzeko.*



*Mandatuaren hartzaile den entearen estatutuek edo sorrera-ekintzak honako hauek zehaztu beharko ditu: enteak izaera hori zer botere adjudikatzailerekiko duen, eta eman ahal zaizkion mandatuen araubide juridiko eta administratiboa zein den. Gainera, estatutuek edo sorrera-ekintzak bitarteko propioari debekua ezarriko diote bere botere adjudikatzailak deitutako lizitazio publikoetan parte hartzeko –halere, lizitatzailerak bakarrik ere aurkezten ez denean, mandatuak eman ahal izango zaio enteari lizitazioaren xede diren prestazioak emateko–.*

*Letra honen 2. zenbakian ezarritako baldintza, nolana ere, enteak dauzkan talde, azpitalde eta kategoriei dagokien sailkapena lortu duenean pentsatuko da betetzen dela”.*

Transkribatutako SPKLren 32.2 artikulua d) letraren azken aurreko lerroetan aurreikusitakoari dagokionez, eta Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamenaren hirugarren akordioari dagokionez, hauetan jasotzen da sozietatearen xede soziala: Alokabide S.A. sozietatearen partaidetzak erosi, eta sozietate publikoa sortzea erabakitzen duen martxoaren 29ko 65/2011 Dekretuaren 3. artikuluan, eta Sozietatearen Estatutuen 2. artikuluan, zeinak Dekretu beraren eranskina baitu, Estatutu sozialak aldatzeko baimena ematen duen abenduaren 9ko 230/2014 Dekretuak emandako idazkeraren arabera:

*“1.– Sozietatearen xedea izango da:*

*a) Etxebizitzak sustatzea eta berritzea, eta, hasiera batean, alokairuan jartzea; hala ere, hori ez da eragozpena izango etxebizitzak euren errentariei, edo horiei ez bada hirugarren batzuei, eskualdatzeko.*

*b) Sustatutako etxebizitzari dagokienez, era guztietako obrak, azterlanak, proiektuak eta mantentze-lanak esleitu eta kontratatzea.*

*c) Era guztietako obrak, azterlanak, proiektuak eta lanak kontratatu eta esleitzea, etxebizitzak, lantegiak edo negozio-lokalak –a) idatzi-zatian zehaztutako eran ustiatuko direnak– eraikitzea edo, hala behar izanez gero, berritzera bideratutako lur-sailak urbanizatzea.*

*d) Edozein eratako ondasun higiezinak erostea eta saltzea, eta aurreko puntuetan aipatzen diren helburuak lortzeko eta jarduerak gauzatzeko beharrezko edo komenigarriak diren eraikuntzak horietan egitea.*



e) *Hirugarrenei laguntza teknikoa eskaintzea eta mota orotako zerbitzuak ematea, dela teknikoa, industrial, merkataritzakoa, komisio-zerbitzua edo sozietatearen izaera eta jarduerarekin lotutako beste edozein motatakoa, trukean ordainketak jasoz.*

f) *Alokairu-erregimeneko etxebizitzak kudeatzea.*

g) *Etxebizitza Hutsaren Programa kudeatzea, zehazki, programa hori arautzen duen 466/2013 Dekretuko baldintza eta zehaztapenekin bat, baita arlo honetaz diren arauak garatu edo ordeztuko ezein araudirekin ere.*

h) *Edozein tituluren bidez atxikitzen zaizkion etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak kudeatzea, bai errentamenduan, bai erabiltzeko aldi baretako lagapenean, hurrenez hurren.*

i) *Onuradun legez edo zuzenbidez onartutako beste era batez babes ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari, indarreko araudiak xedatutakoarekin bat, eta hain justu ere honako jarduera hauek burutzeko: babes ofizialeko etxebizitzak transmititzeari doakionez, eskurapenak lehentasunez egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari aitortutako eskubideaz –lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzekoaz– baliatzeko bitartekaritza-, kudeaketa- eta exekuzio-jarduerak, alegia; betiere, apirilaren 15eko 7/1988 Legean eta hori garatzeko araudian jasotako baldintza eta zehaztapenekin bat, eta bai maiatzaren 6ko 103/1007 Dekretuarekin eta arlo honetako arauak garatu edo ordeztuko eman dadin ezein araudirekin ere.*

j) *Etxebizitzak transmititzeko bitartekaritza eta haien geroztiko akurapena edo salmenta egiteko jarduerari dagokienez, babes ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari; betiere, babes ofizialeko etxebizitzari buruzko araudiarekin bat, etxebizitzon titularrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esku jarri behar badituzte.*

k) *Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 24.6 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Alokabide SAK berezko tresna eta zerbitzu tekniko izaera du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorarentzat, sozietatearen kapitalean partaide diren gainerako erakundeentzat, eta haien mendeko erakunde autonomo eta gainerako erakunde publikoentzat.*



*Sozietatearen kapital osoa titulartasun publikokoa izango da, eta zein erakundetan den tresna propio eta zerbitzu teknikoa, haiexekin burutuko du nagusiki bere jarduera.*

*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailek eta sozietatea bitarteko propiotzat eta zerbitzu teknikotzat duten gainerako erakundeek beren helburu sozialarekin egindako jardunak, zerbitzuak eta beste edozein jardun egiteko agindua eman diezaiokete Sozietateari, betiere horrek administrazio-ahalmenak gauzatzea ez badakar.*

*Sail edo erakundeek kasuan kasuko kudeatzeko gomendioaren bidez eskatzen dizkioten lanak nahitaez egin beharko ditu sozietateak, eta egin ere, sail edo erakunde horiek euren aldetik finkatutako irizpideen arabera.*

*Kudeaketa-gomendio horiek instrumentalak dira, kontratuz kanpokoak, eta, hortaz, ondorio guztietarako, barnekoak eta mendekoak dira. Sozietateak nahitaez bete beharko ditu, eta sozietatea atxikita dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailaren arau organikoek adierazitako organoak nahikotasun ekonomiko-finantzarioaren irizpideari jarraikiz ezarritako tarifak aintzat hartuta ordainduko dira, sozietatea bitarteko propiotzat eta zerbitzu teknikotzat duten gainerako erakundeen parte-hartzearekin.*

*Bitarteko instrumental propioa eta zerbitzu teknikoa den aldetik sozietateari aginduko zaizkion nahitaezko jardunak proiektu, memoria edo bestelako dokumentu teknikoetan zehaztuko dira, kasuak kasu, eta dagokien aurrekontuan balioetsiko dira, ezarritako tarifei jarraiki.*

*Bitarteko instrumental propioa eta zerbitzu teknikoa denez, Alokabide, S.A. sozietate publikoak ezin izango du parte hartu bitarteko propiotzat duten erakundeek deitutako lizitazio publikoetan; nolnahi ere, lizitatuak bat ere agertzen ez bada, lizitazioaren xede den prestazioa gauzatzeko agindua eman diezaiokete.*

*Sozietatearen jardunak zerrendatzeak ez dakar berekin guztiak berehalakoan egitea, ezta denak aldi berean egitea ere, beraietan jarduteko aukera baizik. Kontuan hartuko dira sozietatearen administrazioak askatasunez balioetsitako inguruabarrak, eta, kasuan kasu, jarduerari hasiera eman, eten eta berrekin, bere iritziz, interes sozialak hala eskatzen duenean.”*

Gure ustez, beharrezkoa da estatutuak behar bezala eguneratzea, egungo SPKLren terminologiari eta betekizunei erantzuteko; hala ere, k) letra irakurrita, ondoriozta daiteke



borondatea dagoela bitarteko propio pertsonifikatuztat hartzeko sozietatea, egiaztatu behar bada ere SPKLk eskatzen duela horretarako betekizun guztiak betetzea, eguneratze hori egin aurretik.

Baldintza horiei dagokienez, Batzorde honek adierazi behar du ALOKABIDE, S.A. ez dagoela sailkatuta; hortaz, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egiaztatu beharko du bitarteko pertsonal eta material egokiak dituen agintzen zaizkion mandatuak egiteko, dagoeneko ez badu egin.

Gure txostenaren eskatzailea den Aholkularitza Juridikoak baieztatzen duenez, behar bezala betetzen ditu ALOKABIDE, S.A.k 32. artikulua jasotzen dituen gainerako baldintzak.

Alegia, SPKLren 32.2.b) artikulua, zeinak hau eskatzen baitu:

*"b) Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 baino gehiago egiteko mandatua ematen duen eta hura kontrolatzen duen botere adjudikatzailerak –edo mandatua ematen duen erakundeak era berean kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek– emandako eginkizunak betez.*

*Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 hori kalkulatzeko, honako hauek hartuko dira aintzat: negozioen bolumen orokorraren batezbestekoa; botere adjudikatzailerari emandako zerbitzuengatik izandako gastuak, edozein entitateri emandako prestazioen truke bitarteko propioak izan dituen gastu guztiak aintzat hartuta; edo jarduerari buruzko beste edozein adierazle fidagarri. Hori guztia mandatua formalizatu aurreko hiru ekitaldiei dagokienez.*

*Mandatua formalizatu aurreko hiru ekitaldietako negozio-bolumen orokorra edo –aurreko paragrafoan ezarri bezala– jarduerari buruzko beste adierazlerik eskura ez badago mandatua ematen duen botere adjudikatzaileraren sorrera-data dela-eta, haren jardueraren hasiera dela-eta edo haren jarduerak berrantolatu direla-eta, edo indarra galdu badute, nahikoa izango da jarduera-mailaren kalkulua errealitatearekin bat datorrela egiaztatzea, negozio-proiektzioen bitartez bereziki.*

*Letra honetan ezarritako baldintza egiaz betetzen dela mandatuaren ente hartzailearen urteko kontuetan islatu beharko da, eta, horrenbestez, kontuen auditoreak egiaztatu beharko du, urteko kontu horien auditoria egitean, kontuen auditoriaren jardura arautzen duen araudiari jarraituz".*

SPKLren 32.2.b) artikuluan eskatzen den jarduera-baldintzaren kopurua kalkulatzeko, 2019ko martxoaren 22ko «Baterako zirkularra» eman da, Estatuko Abokatutza Orokorrarena-Estatuko



*Zerbitzu Juridikoaren eta Estatuko Administraziooko Esku-hartzailera Nagusiaren Zuzendaritzarena, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 9ko 9/2017 Legean eskatzen den jarduera-baldintzaren kopurua kalkulatzeko irizpideei buruzkoa, bitarteko proprotzat hartzen diren erakundeetan».*

Zirkularrak gogorarazten du ehuneko 80ko baldintza kalkulatzeko, bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzen diren erakundeek urteko kontuen memorian jakinarazi behar dutela baldintza hori benetan betetzen dutela eta auditoreak egiaztatu egin behar du kontuen auditoretza-lanean. Eta gogorarazten du 2018ko ekitaldiaren gainean egindako urteko kontuak lehenak izango direla behartuta jarduera-baldintza betetzeari buruzko informazioa memorian ematera, eta, horrenbestez, auditoreak informazio hori egiaztatu beharko duen lehenengo urteko kontuak izango direla.

Horregatik, baldintza hori betetzen dela egiaztatu behar da kontuak aurrean daudela.

Estatuko Abokatutza Orokorraren-Estatuko Zerbitzu Juridikoaren eta Estatuko Administraziooko Esku-hartzailera Nagusiaren Zuzendaritzaren 2019ko martxoaren 22ko Baterako zirkular horretan honako hau adierazten da: "[...] kontuan hartu behar den jarduera botere adjudikatzaileak egindako adjudikazio baten arabera egiten dena izango dela, eta hori alde batera utzita jarduera hori nork ordaintzen duen, botere adjudikatzailea bera izan daiteke ordaintzen duena edota eskainitako zerbitzuen erabiltzailea (...)" bitarteko propioak berak egiten dituen jarduera guztiei dagokienez.

*Ildo horretan, bitarteko propioak aukeratutako adierazleak fidagarria eta arrazoizkoa, kuantifikagarria eta kontrastagarria izan behar du, eta, nolahi ere, arrazoizkotasunaren balorazioan kontuan hartu beharko da hautatutako adierazlea **bitarteko propioak egindako jarduerarekin lotuta dagoela, botere esleitzailerak emandako mandatuak baliatuz, edo enkargua egiten duen erakundeak modu berean kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek egindako enkarguekin, eta ez emaitzekin edo beste magnitude batekin. Horrez gain, bitarteko propioak funtzio publiko bat betetzeko egindako jardueraren tratamendua aipatu behar da. Batzuetan, bitarteko propioaren izaera funtzio edo jarduera publiko bat betetzen duten erakunde publikoetan gertatzen da, funtzio edo jarduera hori egitea izanik erakunde horiek sortzeko arrazoia (zerbitzuen deszentralizazio funtzionala), eta, aldi berean, esleitu zaien funtzio publiko horretan sartuta ez dauden jarduerak egiteko mandatuak jaso ditzakete. Jarduera nagusia ordenamendu juridikoak esleitutako funtzioak betetzea dakar, eta, beraz, ezin dira hirugarrenekin kontratatu modu orokorrean. Jarduera mota hori hainbat modutan finantza daitekeenez, negozio kopuru globalaren adierazlearen zenbaketari eragin liezaioke, baina, orokorrean, ulertuko da transferentzien bitartez jasotako diru sarrerak eta jarduera horretarako egindako gastuak zenbaketatik kanpo geratuko direla[...]***".



Zirkularrean honako hau ere adierazten da: "[...] Kontu-auditoreek jarduera-baldintzaren egiaztapena eta proba erraztearren, ulertzen da negozioen kopuru globala kontzeptuari buruzko interpretazioak murriztailea izan behar duela, salbu eta kontrako proba badago, eta hori, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak adierazi duenez, jardueratik etekina lortuko duenak egiaztatu beharko du, hau da, bitarteko propioak.

Oro har, ez dira jarduera horretako zatitzat hartuko mandatu baten estaldurarik gabe egin direnak, eta justifikagarria izango da aldebakarreko ezarpenaren bitartez eta negozio juridiko honen ohar bereizgarriak izateagatik mandatu kontzeptuan sar daitezkeen kostuan oinarritutako konpentsazioarekin egin direnak. Beraz, adierazlearen zenbakitzailean jasotako mandatuei dagokien zenbatekoa sartu beharko da. Zenbakitzailean ez dira sartuko erakundeak ekitaldian lortutako ondare-arloko emaitza ekonomikoa islatzen duen egoeran azaltzen diren magnitude hauek:

- a. Erakunde publikoari legez agindutako administrazio-ahal edo funtzio publiko bat betetzetik eratorritako diru sarrerak, arau juridikoak aplikatuzetik eratorritakoak barne. Azken kasu horretan, bitarteko propiorako derrigortasun-aldagaia eta tarifen egituraren oinarritutako mandatuaren konpentsazio-aldagaia badaude izan ezik.
- b. Tributu-izaerako diru sarrerak.
- c. Botere adjudikatzaiaren jardueraren xedearekin lotutako diru sarreren partidak (kanpokoak edo ez).
- d. Transferentzia arruntak edo kapitalaren transferentziak erakundearen jarduera finantzatzeko, jardueraren instrumentazio juridikoa alde batera utzita, salbu eta egiazta badaiteke transferentziaren bitartez egindako finantzaketa horren zati bat botere adjudikatzaitetik jasotako mandatuekin lotuta dagoela zuzenean.
- e. Diruz lagun daitezkeen jardueratik eratorritako diru sarrerak.

Halaber, ondoren aipatuko diren partidak negozio-bolumen globalaren zifratik kanpo utziko dira; izan ere, emaitzen kontua osatuko duten ondare-arloko izaera ekonomikoko magnitudetzat hartuta, ez dute zuzeneko harremanik izango jarduerarekin agindutako mandatuak direla medio:

- a. Erakundeak bere ibilgetuarentzat egindako lanak.
- b. Hornidura soberakinak.
- c. Ibilgetua besterentzearen ondoriozko emaitzak.

Adierazlearen izendatzailean honako magnitude hauek sartu beharko dira:





- a. *Merkataritza-jardueraren salmentak eta bestelako diru sarrerak (baldin eta erakundea irabazi-asmorik gabeko erakundeen kontabilitate-planaren egokitzapenaren mende badago); negozioen zifraren zenbateko garbia (erakundea Kontabilitate-plan orokorrari lotuta badago) edo salmenta garbiak eta zerbitzuak ematea (erakundea kontabilitate publikoko planari lotuta badago).*
- b. *Ustiapenerako dirulaguntzak.*
- c. *Erakundearen jarduerarekin zuzeneko harremana duten kudeaketa arrunteko beste diru sarrera batzuk [...]”.*

Egiaztatu da auditoretzak 2018ko ekitaldiaren Urteko Kontuen Memoriaren 24.3 apartatuan aipatzen duela beharrezkoa den baldintza bitarteko propiotzat hartu ahal izateko, zehazki, termino hauetan:

*“24.3 Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren bitarteko propioa.*

*Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32.2.d) artikulua xedatutakoa betez, jakinarazten da bitarteko propiotzat duen Administrazioak agindu duela erakundearen jardueren % 80 baino gehiago. Ehuneko hori betetzeko, negozio-zifraren zenbateko garbian oinarritutako jarduera-parametroak erabiltzen dira, bai eta ustiapen-gastuei dagokienez ere, eta kudeatutako etxebizitza-kopurua ere erabiltzen da, erakundearentzat analitikoki garrantzitsua den jarduera-adierazlea. Alde horretatik, hauek dira azken hiru ekitaldiei dagozkien kalkulaturako zenbatekoak, negozio-zifraren zenbateko garbian oinarrituta: 2018.an, % 99,5; 2017.an, % 99,3; eta, 2016.ean, 99,6.”*

Beraz, ez da beharrezkoa geroagoko kalkuluak egitea; izan ere, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak emandako "baliabide propioei egin beharreko mandatuei eska dakizkiekeen lege-betekizunak betetzeari buruzko hainbat alderdiri buruzko Txosten Juridikoaren" jarraibideei ere jarraitu beharko liekete.

Desberdina da egiaztatzea SPKLren 32.7.b) artikulua letrak, bitarteko propioari egindako mandatuak betetzeari buruzkoak, ezarritako baldintza betetzen dela; izan ere, ezin ditu hirugarrenekin kontratatu mandatuaren zenbatekoaren % 50 baino gehiago. Hala ere, Gobernu Kontseiluaren adostasunaren ondorengo urratsa denez, ez da txosten honen xedea, baina ohartarazi behar da, aurkeztutako datuen arabera, oso handia dela beste enpresa batzuek egindako lanen, bulegoen eta ibilgailuen errentamenduen eta profesional independenteen zerbitzuen batura; beraz, aztertu egin behar da sozietateak etorkizunean horri



buruz egin dezakeen jarduera. Egia da SPKLeek hauek salbuesten dituela % 50 hori aplikatzetik: "... zuzenbide publikoko entitateen bidez egiten den kasuetan, ...kapital osoa titulartasun publikokoa duen zuzenbide pribatuko sozietateren baten bidez egiten den kasuetan";hala ere, ez da ahaztu behar mandatuen araubideak beti bete behar duela finantza-eraginkortasun handiagoaren printzipioa, mandatugileak prestazioak zuzenean kanporatzea baino.

Bestalde, baina, era berean, kanporatzea ahal den neurrian saihesteko baldintza hori aipatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. Tituluko 1. Sekzioak arautzen du bitarteko propioen eta zerbitzu teknikoaren izaera aitortzea.

#### *"60. artikulua.- Organo eskuduna*

*Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eremuan, nahitaez bete beharreko enkarguen hartzaile izateko ezarrita dauden lege-baldintzak betetzen dituzten erakundeek alde aurretik eskuratu behar dute Administrazio Orokor edo Instituzionalaren bitarteko propio eta zerbitzu tekniko izatearen berariazko adierazpena, Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez. Erabaki horretan zehaztuko da erakundeak zer saili atxikiko zaizkion horretarako. Adierazpen hori aurrez ezezta daiteke, Gobernu Kontseiluaren erabaki arrazoitu baten bidez.*

#### *61. artikulua.- Prozedura*

*1.- Interesa duen Sailak hasiko du prozedura, eta egokitzat hartutako txosten teknikoak, administratiboak, ekonomikoak eta juridikoak erantsiko dira espedientean. Hura izapidetzen den aldi berean izapidetu ahal izango da erakundea sortzeko beharrezko prozedura edo erakundearen estatutuak zein arauak aldatzeko prozedura.*

*2.- Nolanahi ere, espedientean dokumentu eta txosten hauek egon beharko dute:*

*a) Estatutuak, sortze-arauak eta, oro har, erakundearen jarduera eta borondate propiorik eza (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mende egoteagatik) agerrarazten duten antolaketa-arloko dokumentuak. Erakundea sozietate bat bada, berariaz egiaztatu behar da kapital osoa titulartasun publikokoa dela.*

*b) Aitorpena, egiaztatzen duena erakundearen ustiapen-sarrerak batez ere Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko gainerako erakundeetakoak edo beste hirugarren batekoak direla, betiere sarrera horiek administrazioak berak dagozkion eskumenak baliatuz hartutako erabakiek zuzenean eragindakoak badira. Aitorpen horrek oinarri erabiliko duen informazioa erakundearen urteko kontuen memorian adierazitakoa izango da.*



*Lehen adierazitako baldintza betetzen dela egiaztatzeko, aurkeztu ahal izango dira, modu subsidiarioan, erakundearen kapital- eta ustiaketa-aurrekontuak, behar bezala onartuak.*

*c) Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenak.*

*d) Erakundeak esleituta duen zeregina sektore publikoko kontratuei buruzko oinarrizko legediak azpikontrataziorako ezartzen duen edo dituen mugak gainditu behar izan gabe betetzeko erabiltzen dituen giza baliabideen, antolakuntza-baliabideen eta baliabide teknikoen egiaztatzea.*

*3.- Bitarteko propio edo zerbitzu tekniko izaera aitortzen duen Gobernu Kontseiluaren erabakia Kontratazio Publikoa Euskadin plataforman argitaratuko da, baita erakundea arautzen duen sortze-araudia edo estatutuak ere, eta enkarguek biltzen duten jarduera-eremua ere adieraziko da.*

*4.- Bitarteko propioetat edo zerbitzu teknikotzat hartutako erakundeek Gobernu Kontseiluari jakinarazi behar diote, atxikita dauden sailaren bidez, zer aldaketa izan diren deklaraziorako kontuan izandako inguruabarretan, aitorpena baliogabetu egin behar den edo mantentzeko daitezkeen ikusteko”.*

Gogorarazten da prozedurazko betekizun horiek guztiak ALOKABIDE, S.A.k ere bete behar dituela, bitarteko propioa izateko adostasuna eman ahal izateko, eta, ondoren, baldintza hori estatutuetan jaso behar dela, araudi eta eskakizun berriak kontuan hartuta.

#### **IV.- ONDORIOAK**

Horrenbestez, Gobernu-kontseiluaren erabaki-proposamenaren aldeko txostena ematen da adostasuna emateko ALOKABIDE, S.A. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren bitarteko propio pertsonifikatua izateko.